# 2004-XII-09

Gogoan hartzazue
martitzen hartan pasa zena,
bi mila eta laugarren urteko
abenduak bederatzian, bai jauna.

Nire herria dotore jantzia,
argi gorriak, banderatxoak.
Mr. Marshall balitz bezala,
ongi etorri errege jauna!!

Dena kontrolpean,
erradikal guztiak etxean.
Zuen zorrak, gure banketxeak,
polizia eraginkorrenak.

Hemen da, heldu da
frankismoaren seme bakarra.
Zeharo ahaztu al dugu historia?
Oroimenik gabekoa gure memoria.

Bapatean esperantza
bozgorailu batetik atera da,
hildakoen oihua bezala
entzuten da Karlitosen kanta.

Hala bazan ala ez bazan,
denon ardia otsoak jan.
Etsaiari popaka dagoena
haren eskutan hil ohi da.

Memoria
ez deigun galdu.
Begiak zabaldu min eman arte,
Historia
ez deigun ahaztu.
Zauria ukitu, urratu arte.
Ez dezagun saldu!

Era martes,
9 de diciembre de 2004…

El pueblo elegante,
lucecitas rojas y banderitas de colores.
Como en "Bienvenido Mr. Marshall"
Los reyes magos se habían adelan-
tado…

Todo está bajo control.
Los "peligrosos" en sus casas,
vuestras deudas en nuestro banco.
Las hipotecas son la mejor policía.

Ya está aquí el invitado,
el hijo único del franquismo.
¡¡Qué pronto olvidamos la historia!!





¡¡Qué pronto perdemos la memoria!!
Memoria.
Abrir los ojos hasta que duela.
Historia.
Romper las uñas rascando la herida.
No podemos olvidarlo,
no lo pongamos en venta.

El único hilo de esperanza
llega al escuchar el himno…
Sube el volumen!!
Es una canción de RIP.

Y así termina el cuento.
Oveja de todos, comida de lobos.
Quien a su enemigo besa,
en sus manos muere.





# RIMMEL

Ipuin puta guzti horietako
printzesa arrosak,
zeharo nazkatzen nauten
maitasun kantuak...

Isildu behingoz eta sartu ezazu
mingain hori txuloan.
Ez baldin banauzu aspertu nahi
eman muxu ahoan.

Esaidazu ez jarraitzeko
arrazoi bakar bat,
baditut ez geratzeko
nik beste hamar.

**Zaude lasai,**
**ez zaitez saiatu ulertzen.**
**Egon zaitez lasai,**
**ez dut zugandik ezer nahi.**

Ardo beltz hori edan dezagun,
zatoz hona.
Goitik behera erantzi nazazu
eta goazen ohera.
Ei, txikito!! Zaude lasai!!

Zer uste zenuen ba,
zutaz eroki maitemindu
egingo nintzela?

Zu pozik zaude euria ari badu,
ni pozik nago euririk ez bada.
Zu pozik zaude euria ari badu,
ni pozik nago zu pozik ez zaudenean...
Bapatean esperantza
bozgorailu batetik atera da,
hildakoen oihua bezala
entzuten da Karlitosen kanta.

Hala bazan ala ez bazan,
denon ardia otsoak jan.
Etsaiari popaka dagoena
haren eskutan hil ohi da.



Como en los jodidos cuentos
de príncipes y princesas.
Como en una aburrida
canción de amor...

Cállate ya
y bésame en la boca,
que me estás aburriendo.

Dame algún motivo
para parar
y yo te daré diez
para continuar.

Tranquilo,
no intentes entenderlo.
Tranquilo,
no hay mucho que entender.

Cállate,
apura la copa de vino,
desnúdame entera
y vamos a la cama.

Eh tio,
no creerás que de ti
me voy enamorar!!!

Tú eres feliz sólo cuando llueve,
yo soy feliz cuando escampa.
Tú eres feliz sólo cuando llueve
y yo soy feliz cuando tú no lo eres...

# SURIK BAI?

Tatuaturik jaio denak zer espero du?
Tabakoaren keak horitu nau.
Arima tatuaia tinta lez gastatzen da,
ezin diogu ihes egin patuari.

Eskutik eskura kez horditurik
zenbat zulodun poltsiko,
mila putetxe, mila garito.
Promesa eta gezur artean goizaldero ito,
bada birikak baino bihotz beltzagorik.

Gazte bati lagundu nion
banku bat erretzen,
eta zer?
Aurpegia zuen estalia,
baina asmoa argia.

Zakurrek hartu ninduten eta hemen nago
gatiburik
euren esku zikin eta traketsetan,
Garcia Gutierrez kale zikin honetan,
Estatuaren estolderietan,
aiztoz, pistolaz, drogaz, beisbol makilez
inguraturik.
Gasa eta harria,
besterik ez da behar
Big Bang honetarako.
Total, munduak ez du soluziorik,
kaka besterik ez inguruotan.
Bakarrik ezin dut,
har nazazu,
atera iezadazu barruan dudan indarra.
Elkarrekin lortuko dugu,
eman diezaiogun su mundu puta honi.





¿Pero que esperabas de mi
si ya nací tatuado...?
Amarillo por el tabaco,
con el alma tan desgastada
como la tinta de mi piel,
nadie puede huir de su destino.

De mano en mano,
borracho de humo.
Vivo entre bolsillos rotos.
Mil garitos, mil puticlubs...
Me ahogo cada mañana
entre promesas y mentiras,
entre corazones negros como pulmones.

Un joven me llevó
a quemar un banco.
Tenía la cara cubierta
pero las ideas muy claras

Me confiscó la policía
y ahora estoy retenido
en la calle García Gutierrez.
Entre navajas, pistolas, droga
y bates de béisbol.
En las alcantarillas del Estado.

Piedra y gas.
Suficiente para el Big Bang.
Total, estoy rodeado de mierda
en un cajón sin solución.
Pero yo solo no sirvo,
cógeme, apriétame
y saca todo lo que llevo dentro.
Juntos podemos darle fuego
a todo este puto mundo.





# GERO ARTE

Lortu duzu, bai,
titular bat lehen orrian,
Madriletik barrena
Dodge beltz batean.

Playboyrik gabeko
ilehori bat bezala,
inor baino lehen
heltzen da polizia.

Atzo Bat zena
gaur da Zazpi,
eta gaurko Lau
bihar izango dira Bi.
Gero arte bat gezurra da beti.
Ez dizut sekula egingo zuri
maitasun kantarik.

Beltza, zuria,
gorri gutxi azken aldian,
aspertuta nauka
Mozarten sinfoniak.

Has logrado ser portada
paseándote por Madrid
en un Dodge negro.

Como la top model
sin playboy.
Siempre llega antes
la policía.

El pasado se olvida,
el presente caduca
y el futuro ya veremos.
"Hasta luego" siempre es mentira
y jamás te escribiré
una canción de amor.

Blanco, negro y algo de rojo.
Me aburre escuchar a Mozart.

Voces lentas,
medidas y ritmadas.
Toda tu boca
es un panfleto.

Dando vueltas
como la puerta del Chicote.
Los viejos rockeros
ya no salen a la calle.







# IDÍLICO

Arratsaldeko sei t'erdiak jota Bartzelonan.
Urrezko katedun gizonak ate atzean zain,
poetak barreran, aktoreak gure atzean.
Atzo agortuta zeuden sarrerak berriz salgai.

Ez otoirik, ez gurutzerik, ez aldarerik,
zuretzat ez da birginen irudirik.
Lurrean loreak, panpinak, eta zure oinak
hondarretan plazari iltzaturik.

Hil arte dantzan!

Hitz eginaz begiekin, argi.
Gu denok ixilik,
zu mugitu barik,
berdez eta urrez jantzirik.
Hiri honek laster llargi bi.
Berdez eta urrez jantzirik,
zu mugitu barik
eta denok ixilik.

Baltseo haren erdian
zure bikotea bapatean geratu da!!
Montera usnatzen du, irribarre egiten duzu...
Pasodobleak jarraitzen du!

Bizi ala hil?
Tortura eta tradizioa.

Barcelona.
Seis y media de la tarde.
Dimes, diretes,
mentideros y reventas.
Guapos con cadenas de oro.

Ni rezos, ni altares,
ni vírgenes en el pecho.
Ositos de peluche
y tus pies atornillados.

¡Bailando hasta morir!

Hablas con los ojos,
brindas con la mirada.
Silencio verde y oro.
Esta ciudad pronto tendrá 2 Lunas.

En mitad del agarrao
tu pareja se detiene
a olisquear la montera.
Sonríes... y, ¡¡que siga el pasodoble!!

La vida, la muerte.
El valor, el miedo.
¿Arte o espectáculo?
Tortura y tradición.



# DYANE 6

Aurten negua luze, zer ote?
Kukurruku bat entzun da gauerdian...
oilarra da, guri zerbait esan nahian.

Goiko baserriko aitona
malkoei ezin eutsiz
herrira bidean doa, sinestu ezinik.

"Zer berri dakar prentsak gaur?"
eskuak atzean, txakurra alboan,
irribarrez eguzkiari begira.

**Betiko gogoan**
**zure hitzak, nire promesak,**
**azken estutu hura.**
**Ez zara hilko, ez baitzaitut ahaztuko.**

Nork esango luke
inoiz hau dena esango nizula?
Nitrogenoa, Dyane 6 bat... eta azken hatsa.

...no es muy normal
que el gallo a medianoche
quisiera cantar.
Algo nos quería contar.

El hombre de la casa
ha bajado al pueblo.
Con la corbata negra, la boina nueva,
y las pestañas húmedas

Siempre recordaré
tus palabras, mis promesas.
Las personas solo mueren
si dejamos de recordarlas.

¡¡Quien te iba a decir
que tendrías una canción!!
Nitrogeno, un Dyane 6...
y el último apretón.







# ERROR 404

Haurrak bakarrik daude
aspertuta hemen.
Helduek ez dakite
zoriontsu izaten.
Bakarrik aspertzea
inoiz gertatu al zaizu?
Aizu, barkaidazu baina
nik ez dut sekula lortu.

**Woodstock ala Paris,**
**ba al dakizu**
**zein izan zen azken iraultza**
**Woodstock ala Paris,**
**ba al dakizu?**
**Abuztua ala Maiatza?**

Adjetiboa galdu,
orain sustantzia nahi dut,
paradisura salto
O.N.G. bat zuzenduz.
Inbidiaren gorrotoa,
justiziaren gezurra,
gizartea eraikitzea
dut aitzaki bakarra.

Debeku gehiagoren bila
jarduten duzu,
legearekin nahikoa
ez al daukazu?
Sustantzia agortu dut,
adjetiboa behar dut!!

Aquí sólo los niños se aburren,
los adultos son infelices.
¿Alguna vez te has aburrido
estando solo?
Yo jamás lo he conseguido.

Woodstock o Paris,
¿dónde fue la Revolución?
¿Agosto o Mayo?
¿Cuál eliges?

Cambio adjetivo por sustancia.
Pretendes saltar al paraíso
por medio de una O.N.G.
El odio de la envidia,
la mentira de la Justicia.
....y todo por hacer sociedad.

¿No te basta con la ley
para buscarte más prohibiciones?
Cambio sustancia por adjetivo.



# LOKARTU ARTE

Saiatu arren ez dut gogoratzen
zenbat eskuk ukitu ote nauten.
Saiatu arren ez dut gogoratzen
zenbat aldiz muxu eman didaten.

Zatoz hona eta etzan,
segi nirekin dantzan,
hitz goxoak belarrira esan.

Egin hemen igurtzi,
jarraitu hor, poliki.
Desio bat eta gorputz bi.

**Zure zilborrean
bapatean muxu ematean,
nire hankartean
jolasean izara artean,
biok lokartu arte.**

Ez gelditu, laztana,
eta jan nazazu dena,
laster lehertuko naiz, ni banoa.

Jaitsi beheraino prakak
eta zabaldu hankak.
Desio bi eta oihu bat.

No sé cuantas manos
me habrán recorrido.
Ni cuantas bocas
me habrán besado.

Siempre he disfrutado.
La cama deshecha,
las persianas cerradas
y tus piernas abiertas.

A cámara lenta
entre las sabanas.
Como en una autopista
entre tus piernas.

Dos cuerpos y un desayuno.
De protesta un gemido.

Hasta quedarnos dormidos…





# PORTALOIAN

Erdikokaletik behera
Portaloiraino,
Arkonada zaleak semeari
Barçakoa janzten dio.

Zaldi karreretan eta
frontoian bezala,
irabazlea zein den ikusita

haren alde jartzen gara.
Nor da inor?
Eta zein da nor?
Atzerritarrak gara!

**Nor da hemen arrotza dena?
Hauxe al da nire herria zena?
Atzerritarrak gara!**

Herriko festetan
baskitoz mozorrotuta
eta aspergarriak azken aldiko
rockanrol berri guztiak.

Baina bada zerbait
inoiz aldatuko ez dena…
tabernetan keinu egiten badizut,
gorrituta jartzen zara.

Bajando por Erdikokale
al llegar al Portalón…
los que quisieron ser Arkonada
ahora visten a sus hijos
con camisetas del Barça.

En el hipódromo o en el frontón,
nos gusta ser del caballo ganador.

¿Quién es alguien aquí?
¿Quién es quien?

¿Alguno se siente extranjero?
¿Será este mi pueblo?
¡¡Todos somos extranjeros!!

Se "visten" de Vasquitos
Al llegar las Fiestas.
Las canciones
les nacen ya cansadas.

Pero hay algo
que nunca va a cambiar …
si yo te hago un guiño,
tu siempre te pondrás colorada

